

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

298n. zenbakia
iraila 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ZIORTZA´ KO ARMARRIA

**968N URTEAN, GERRIKAIZ´KO GARAI´N, SANTA
LUZIA BASELEIZAN ARTUTA, JAZOKUNDE -
EGUNEAN, ARRANOAK BURU - AZUR BAT
EROAN EBAN ETA ZIORTZA´N ITZI JAUSTEN.
ANTXE EGIN ZAN MONASTEGIA GAUR DANA.**

ERAKUNDEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki
 Solozabal'dar Paulin
 Malaxetxebarria'tar Jon
 Ormaetxe'tar Emilio

ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ

GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza. (Ez dago).
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokrasiaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.
Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira.

Ordaiña: Bakoitza sei euro.
Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

Eskatu: Martin Olazar
XXIII Jon Z. enparantza 2.
48100 Mungia - Bizkaia
Tel: 94 674 01 23

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egilea: "Euskerazaleak"
Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele
Idazkola: "Euskerazaleak"
Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)
Idazleak: Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa)
 Aldalur'tar Justife
 Egaña'tar Gotzon
 Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)
 Martiaru'tar Iñaki
 Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

AUGUSTIN ZUBIKAI! AGUR!



Augustin Zubikarai Bedialauneta
(Maria Jesus Erkiagaren alarguna)
(Goian bego)

Illeta
Galdakaon 7 zan atzo, garagarillaren 12an, 89 urte etaazala, Eliza Arazaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedinkuakina urte ondoan.

GAUR
Martitzena 13
Arazakideak
7,00etan
ONDARROAko
Auzo Mari
Parekian

Bere seme-alaba, Jose Agustin (1), Jain Antoa, Alejandro (1) Beatriz, Maria Jesus eta Fco. Xabier; zain-errain, Aurora Diaz Remesteria, M. Elena Abeldio (1) eta Juan Bautista Izalberriaga; iloba, Gorka, Igor, Nerea, Juan Antoa, Maria, Elena Beatriz, Maddi, Lore eta Bekat; anai-arreba, Jose Mari (1), Imanol (1), Paulin, Ane, Karmel, Peli (1) eta Begofia; koinatu-koinata, Bitzari Idoeta, eta beste senideak.

Garagarillaren 12n. Egunean, 2004n. Urte onetan, agur egin euskun beti bazkide ta laguntzaille ona, bai Euskerazaleak Alkartean eta bai Euskerazaintzan, izan dogun gure Augustin'ek. Aspaldion egoan gaisorik, ibilli-eziñik eta berbarik egin eziñik, ainbeste berba esan eta idatzi ebazan gure Augustin!

Ondarroa'n izan zan bere illetan gizon opetsu eta euskaldun on asko alkartu giñan, geure aldetik azken-agurra egiteko.

Berak benetan maite izan ebazan Euskerazaintza eta Euskerazaleak, naita maitasun ori agertu ez illeta aretan. Isillan eta erriaren alde egiten dan lana nork ordaindu ez dala peituko uste dogu.

Aspaldion gure lankideen artetik asko joan jakuz: Puxana, Kerexeta, Zubiri, Anes Arrinda... Goian begoz. Euren utsunea betetea ez da gauza erreza izango, langille barriak bear doguz! Baiña betikoak lan geiago eginda baiño ez ba'da be, gure jokabideak aurrera egingo dau.

OLAZAR'tar Martin'ek

Augustin Zubikarai Bedialauneta jauna

Euskaldun jatorra
Idazle oparora
Ezitari atsegina

"Zure laguntza estimagarriagatik, eskerrik ezko"

ARRATE IRRATIA

Augustin Zubikarai Bedialauneta jauna
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko urtailaren 12an, 89 urte zituela.

**Eusko Abertzaleak
Taldeko Batzarkide ohia**

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK-EAJ/PNV

Augustin Zubikarai Bedialauneta
"ONDARROAko SEME TXIT ARGIA"
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko urtailaren 12an, 89 urte zituela.

ONDARROAko UDALA

"Nire berbak ibaztarrenak dira; bigunak batzuk, garratzak besteak nire inulimenez ibaz-irudietatik sortuak".

Goiputzaren harrera, Udai Pleno Aretoran izango da arazoakideko Setatik aurrera.

Ondarra, 2004ko urtailak 13a

Augustin Zubikarai Bedialauneta jauna
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko urtailaren 12an, 89 urte zituela.

ARRANONDÓ KULTURA ALKARTEA

Berri hitz dago,
Lekero hitz dago,
Ezkerdun hitz dago.

Zuk harkak berri jarrizko berriago
Ondarra, 2004ko urtailak 13a

ABIZENAK

Aginagalde: “Agina” landara bat da, erderaz “tejo”. “-aga” mugatzaille sendotua eta “-alde”, urrean dagoana. Agiñetik urrean dagon etxea, litzake dana.

Errexil'en sortua da eta Aramaio'n agertzen da 1769n. urtean.

Agiriano: Agiña deritzen landarak dagozan lekua.

Eskoriatza'n eta Gatzaga'n agertu zan, baiña lenengoz idatzita Eskoriatza'n bertan 1506n. urtean.

Agirre: Avisen au bat izan leiteke bese batzukaz: Age-re, Agarre... eta olako izena daukan esterren bat erririk geienetan dago, Euskalerra osoan: Guipuzkoa-n 45 etxe. Oñate'n 5.

Agirian dagoan etxea esan nai ei dau. Lopez Mendizabal'ek barrutia dala diño.

Elorrio'n agertzen da, 1575n. urtean.

Aguirrebengoa: Aguirre izena daroan etxeen artean berengoa esan nai dau.

Legazpia'n agertzen da 1731n. urtean.

Agirretxe (-txo edo -txu): Agirre'ren etxea edo etxe txikia.

Bilbao'n agertzen da 1621n. urtean.

Aibar: Naparroan dago izen ori daroan erria.

“Ai-” bedar-lekua ei da, aldapa be izen leiteke. -bar atzikia da.

Naparroan 698n. urtean Rekaredo bisigodoaren aurka-ko gudan agertzen da avisen au eta ordutik sarritan Naparroa'n.

Aizarna: Aiz aritz'etik teoría da eta -na atzikia ugaritasunaren ezaugarri da. Orduña, Aizarna arizti aundia da.

Aizarnaeta agertzen da 1212n. urtean Nabas de Tolosa'ko gudaldian.

Azpilikueta: Aitz izan leiteke aitz naiz arritza. Tolosa'n agertzen da 1609n. urtean eta Javier santuak daroan

bere abizenen artean, baita “Doctor Nabarrus” ospetsuak be. Naparroan ugari agiri da.

Alaba: Ala- bedar lekua da eta -ba ugaritasuna. Izena Leon'en 886n. urtean.

Gamarra'n agertu zan eta ortik Aiala'ra ta Naparroa'ra igaro.

1561n. urtean Iruña'n daukagu.

Alaiza: ALAI bedar lekua da eta -tza atzikia, ugaritasuna. Bedarra ugari dauan barrutia dogu ba.

Araba;n agertu zan XI gizaldian.

Alaña: Ala- bedar lekua da eta -na ugaritasuna.

Aiala'ko Menagarai'n agertu zan, gero inguruetan eta Bilbao'n.

Albero: Alber -bedar sikua da eta -o ugaritasuna. Mitxelena'k “arri” eta “berro” alkartzen dauz eta aria dagon ezo-lekua dala diño.

Ataun'en agertzen da 1329n. urtean.

Alboniga: Alb- bedar legortua da eta ni- ta -ga toki - atzikia.

Alkorta: Ala- bedar legortua da eta -korta abereak atsedentzen diran lekua, erderazko sel, ortik datoz Kortazar eta abar. Orduña bedarlekuan dagoan atsedent -lekua.

Azkoitian agertzen da 1550'an.

Aldaba: Aldape'ren aldakuntza da eta aldapa batean barrenean esan gura dau.

1554n. urtean Naparroan agertzen da. Aldabe Nabas de Tolosa'n 1212n. urtean.

Aldama: Alda- mendiaren aldapa da eta -ma toki - atzikia.

Aiala -inguruan agertua da ete lenengoz Balladolid'en 1520'an.

OLAZAR'tar Martin

ERBESTETIKO BIDEZ-BIDE-IBILTZAILLE ZARRAK EUZKADI-ZEAR

XV Mendeko Azken-Amarr-Urte-Aroan

XV MENDEAN, EUZKADI'N 6 ESTADU.- Bi izango dira mende orren urteetako azken amarrekoan Euzkadi'n ibilli zirako gaur aztertuko ditugun oiñ ariñeko giza-semeak. Amarreko orren barruan zer urtetan emen ibilli zitzaizkigun ziur esaterik ez dugu. Biak atzerritarrak: Epañiarra bat, Jaun de Padilla; Alemaniarrak besteak, Arnaldo Von Heriff. Biak utzi zizkiguten idatzirik gure Euskalerrri oni-buruz bere baitan sumatu zituzten sentimentu ta gogoetak.

Ez da asko, utzi zigutena, baiñan zarra dalako badu bere balioa.

*

1490'ren inguruan, arnaska ta neketsu Aitzkorri-malda igotzen ari zitzaigun Juan de Padilla españiarretik asiko dugu gaurko lana.

Juan de Padilla ori Epañiarrak zalarik ¿nola esan dedan atzerritarra zala? Bâ..., erbestekoa zalako. Araba, Bizkai, Gipuzkoa, Laburdi, Naparroa ta Zuberoa, Laterri Yareak, ots, Estatu Libreak, Independienteak, bait ziran orduan.

Urte ortan bazuan oraindik Naparroa'k bere erregea, zuzenki mintzatuz, bere erregeña: Kataliñ. Andre au Labrit'eko Yon'ekin ezkondurik zegoalako, biak izan oi dira Naparroa'ko Errege izendatuak.

Urte ortan bertan, 1490'ean, auek ziran Naparroa'ren inguruko erregeak:

- Frantzi'n, VIII Karlos
- Aragoi'en II Fernando;
- Gaztelerrian I Isabel ordurako Bizkai'ko Andre Yarea zana, Bizkai'k erantzukizun garai ori eman ziolako.

BIZKAI, LATERRI YAREA.- Orduan Jaun zuan Gaztelerriko IV Enrike'ri muziñ-eginda gero, muzindutako errege orren arreba, Isabel, artu bait zuan tamalez Andretzat: Andre yaretzat: Gaztelerrian IV Enrike'k Errege yarea izaten jarraitu zuan bezala, Andre yarea izan bait zan Isabel Bizkai'n.

Agian, irakurle, txantxakeri utsa irudituko zaizu esatera ninjoakizun au, baiña IV Enrike ill ondorean Gaztela'ko Erregiñ, ortarako eskubiderik ez zuan Isabel'en orde, ortarako eskubide osoa zuan Yone izan ba'litz, Isabel, soilki Bizkai'ko Andre izanez jarraituko zuan, eta

mendeak-zear belaunaldiz-belaunaldi, Monako. Andorra, Liechtenstein eta Luxenburgo'ren antzera gaur, agian, Bizkai Jaunderrri Yare, edo "Señorío Independiente" bat izango genuan.

*

Antziña artan orde ez zion Isabel'ek Bizkai'ri, itxuraz beintzat, maitasun aundiegirik izan.

Ori bera gertatu oi zan gure Jaun eta Errege guztiakin: ez zioten beren Erriari zaletasun geiegirik izan. Beren burua izan zuten maite, ez beren agintaritzapeko Erria. Bakoitzak bere burua gorago jasotzeko gertu egon ziran beren erriari bizkar emateko. Gaitz aundia egin zion "Jauntzak" Bizkai'ri ta Erregetzak Euskalerrri osoari.

ISABEL BIZKAI'KO ANDREA, GAZTELERRIKO ERREGIÑ-GAI.- Isabel Andreari ere ajola gutxi izan zitzaion Bizkai'gatik. Gaztelerriko Erregiña izatea izan zuan gogorik aundiena, eta ori lortzeko gudara arrastatu zuan Bizkai.

Bi ziran bâ urte aietan Gaztela'ko erregeiñ-gaiak:

- IV Enrike erregearen arreba, edestiak "la Católica" esango diona, eta

- IV Enrike orren alaba, Yone Gaztela'ko printzesa: bere jaiotza zikintzearen, Isabel'en alderdiko Aundiekiek "La Beltraneja" izendatu zutena, Juana erregeiñaren eta erregeiñ orren adiskide izan zan Beltran de la Cueva ministroaren arteko lizunkeritik sortua zala zabalduz.

Yone ta Isabel'en arteko borroka, onek, Isabel'ek irabazi zuan 1469 ezkeren bera senarra zuan, Aragoi'ko II Fernando, Toro'n, azkeneko borrokan, garaille irten zalako.

*

Orain Epañi'ko gotzaiek aldareetara jaso nai dute beren "Isabel la católica" maite ori, baiñan ez ziran oso garbiak izan Erregetza lortzeko erabili zituan erak. Badut Isabel "La Católica"z astiro itzegiteko gogo, eta egingo dut, beste batean, gaur gure Euskalerrri ontako bertsolari ta bertolaritzaz nai nuke bâ zerbait esan.

*

ARABA TA GUIPUZKOA ARTEKO BIDE BIAK.- Gai ortaz era egokian itzegin aal izateko, goazen orain Juan de Padilla bidalariak zer esan zigun ikustera. Esan zigun ori bertsoz esan zigun, olerkaria bait zan bera: "Los Doce Triunfos de los Doce Apóstoles deritza bere olerkilanak.

Olerki ortan Adrian Deuna'ren Leize-zuloa aipatzen digu. Leize-zulo ori bi aldetik irikia da, et Araba'tik Gipuzkoa'rako bide zarrean dago, Aizkorri'ren lepoan, goian, ia Euzkadi'ko bi Lurralde nagusi oiek alkarrekingo muga egiten duten toki berean.

Gaurregun mendigoizaleen ibil-lekua dugu, izadiak berak, misteriozko lanez irikitako mendi-zulo ori, antziña artan ordea, Araba'tik Gipuzkoa'ra edo alderantziz Gipuzkoa'tik Araba'ra igaro nai zuan orentzat zan bearrezko igaro-bidea.

Bi ziran antziña bi Eusko-Laterri oien artean, batetik besterako bideak: Arlaban, sarkaldean; San Adrian, sortaldean. Beranduko antziñatasunean, ots, gaztelerazko "antigüedad tardía"n jendea Arlaban'dik ibilli oi zala dirudi, naiz agian igarobide ori orduan gaur baiño gorago egon, VI mendearen asierakoak bait dira Aizorrotz mendia'ren gerrian bertan, aurkitu-berriak diran krismo batzuk. Agian ura zan igarotegirik zarrena eta an sortu zitzaion gero berekin beerago, gaurko lekura, jetxi zuan izena: AR-LABAIN, gaurkoa ez bezala benetan bait zan arri irrastakorrezko bidea arkaitz gogorrean irikirik zegoan goiko bide ura.

*

Danadala,, XVII eta batez ere XVIII mendez gero ia gure egunok arte, Arlaban'go bi bide oietatik beekoa, Araba'ko Landa'tik Gipuzkoa'ko Lenitz-Gatzaga'ra doana izan da Frantzi'ra joateko bide nagusi bakarra, errepidea, ots, errege-bidea. Ortik ibilli ziran Napoleon Bonaparte ta ainbat eta ainbat errege ta erregiñ.

Aurretik ordea, Erdiaro osoan, San Adrian'goa izan zan biderik maitatuena eta aukeratuena, bearbada Farn-tzi'ra eta Frantzi-zear Europa'ra joateko eta andik etortze-ko, motzagoa gertatzen zalako.

Orra or zergaitik esan oi zaion "Erromesen Bidea". Bide ortatik ibiltzen bait ziran Konpostela'ra zijoazen guztiak.

SAN ADRIAN'GO BIDEA.- Oraindik, Giputz-Erri-ko Zegama'tik gora, Galarreta eta Zalduendo erri arabarrak arte, aztarnarik ugari gordetzen duan galtzara gogor eta neketsu ortatik ibilli oi ziran aruntz-onuntz erromes ar eta emeak ezezê gaiñerako errege, erregiñ, gotzai, ta eliz-eta-gizarteko-jaun-da-andre ospetsu guztiak.

Gaitza da benetan eta arriskutsua bide arras piku ori, batez ere bere iparraldetik. Baiñan egoaldetik ere ez zan askoz errezagoa. Alde ortatik igo zan gure Juan de Padilla, eta, olerkaria bait zan, bi "estrofa" edo "aapaldi"tan bertsoz eman zigun bere iritzia mendi orri-buruz. Argi azaltzen du bi aapaldi oietan igoaldi ari ibildariek zioten bildurra. Ikus:

*

"Así comenzamos a subir a la sierra muy nublada, con pena y afán como quien sube por San Adrián, partiendo de noche de su Salvatierra".

*

Ori da, San Adrian'ez, bere lenengo aapaldia. Aski ulerkaitza. Ea guk -olerkariak eman nai izan zion zentzua ematen- asmâzten dugun:

"Ala asi giñan oso laiñotsu zegoan mendi-katera igotzen; nekez ta atsekabez, bere Agurain'dik gauzez asita San Adrian'era igotzen dan (oro bezala).

BERTSO OIEN BALIOA.- 1498 baiño leenago egin zuan gure olerkariak ibillaldi au. Urte ortan sartu bait zan Kartujara. Orregaitik esan oi zaio "el Cartujano". "Kartujarra", gaztelerazko elerti-liburuetan. Beranduago argitaratu zuan bere olerki ori: 1521'ean, dirudianez naiko adintsu zanean, bein baiño geiagotan atzipen bait dagio oroimenak. Adibidez, San Adrian'go bidea **gauzez asi zutela** esaten duanean: **gauzez** ez bait daiteke mendi aietara igo. Ezta egunez ere, mendia berak dion bezain laiñotsua, **"muy nublada"**, ba'zegoan.

Oraindik aundiagoak dira bigarren aapaldiko zentzugabekeriak:

*

"Al puerto de san Adrián horadado me asemejaba la tal abertura; en partes estrecha su concavadura, y tal que llevaba mi cuerpo de lado."

*

Mendian **"igaro zuan zulo arek, tarteka-tarteka ain estua zalako, soiña saieska eramatera beartu zuala** --diosku eta-- **estutasun aiek san Adrián'go zuloa oroita-razi ziotela"**.

Itzei berenez duten zentzua ematekotan, gure "Kartujarra" San Adrian'era ez baiña beste mendiren batera igo zala, uste bearko genuke. Ori ordea, egia izan ez daitekean gauza da. Mendi aietan, mendi aien inguruetan, eta mendi aietatik eundaka leguaz urruti ere, alako mendirik ez bait da. San Adrian bakarrik! Beraz San Adrian'era igo zan ezpairik gabe, naiz berak buruan oroipen guztiak nasirik euki. Izanere, San Adrian'go zuloak alako estutasunik ez bait du!

Nasketa ori ¿noizbait gauzez ametsetan gertatu ote zitzaion?

Baleike, baiñan izan daiteke beste zerbaiten ondorio ere.

Barka eidazute irakurle adiskideok orain zerbait luzatzen ba'naiz, esatera noanak gure bertsoz berriaz itzegiteko bidea ematen bait dit.

Bixente Latiegi
(Jarraitzeko)

AGURTZA

Maria eta Errosarioa.- Errosarioa fundeu zuena Santo Domingo de Guzmán izan zan, orain bosteun urte inguru mari. Ortik, Dominikoak sortu ziran. Nire bizitzan zear, etzean eta eleizan, umetarik irakatsi ninduen errosario errezuak egiten; eta mezara lentxuago joan ezker, leku batzutan noizik bein otoiztutzen dala ikusten dot. Baña pentsa-ematearrean gauzak bear leitekezan modura ez dirala esaten ere koturatu naiz, pentsau barik esaten direzelako, eta ez dalako pentsetan zer esaten dan.

Andra Mari edo Mariari buruzko zaletasuna (IV) garren gizaldian asi zan; eta gero XIII garren gizaldian alfonso Xgarren “El Sabio” jaunak beren Cantigas de Santa Maria koplak ta kantuekin Mariaren zaletasuna indartu eban. Frantziarrak eta Alamaniarrak ere orduko gizaldian bardin antzera egin ebien; eta esan dan lez, gero benediktinoak sortu ziran. Baña Mariari buruzko gauza oneik Kristok ez ebazan agindu.

Uste dot orrelakoak eta antzerako gauzak, erlejiño danetan gertatzen direzela, biotza eta buruko zentzua batera erabili barik; gauzak esan da esan, pentsau barik zer esaten dan, gauzak orrela direzela ta, konforme.

Esate baterako: Santa Maria Jaungoikoaren Ama erre-gutu egizu gu... (Santa María Madre de Dios ruega por nosotros). Baña ori ez dago ondo esanda; Maria, betiko eta iñoizko Jaungoiko Aitaren ama ez talako. Maria orduko denporatako birjiña bat izatetik eta Jainkoaren aginduz, Aingeru baten bidez, Mariak beraganako barriak entzun eta ontzat artu ei ebazan, eta bete ere bai, Jesus jauna mundu ontara Mariagandik etorri zan da; baña ori olan dala ta izanarren be, Maria ez da ez jainkosa ez erre-giña, ez emen ez zeruetan. Maria, Maria da ta orri bakean utzi.

Jainkoa ei da, ez dogu ikusi, ta ez dakigu nor dan eta zer dan; baña Jaungoiko Aita beren baitan dagoena ei da. Eta Maria orain bi milla urte bizi zan. Mariagaitik eta Mariari buruz, zeruetako erregiña eta zeruko erregiña dala esan eta esaten da. Baña ori eleiteke esan bear, olangorik eztakigu ta. Jainkoak gizonakin berba (itz) egin al ete dau? Bibliak baietz diño. Adan, Noe, Moises eta Abrahamekin itz egin ei eban.

Gaur egun, askok Mariaren izena ugari erabilli eta Kristoren itzal aundiena orela estaldu eta urritu. Kristok Jaungoikoaren berbea aldarrikatu eban eta beren artekoa-

ri be Jaungoikoaren berbea aldarrikatzeko agindu eutsen. Eta Abrahamen amar aginduak zirala ta, Kristogandik Jainkoaren aginduak osotuz esanak? Ba onelako antzera baten esan ei eban: Jainkoa gauza guztiak baño len maite izango dozu (Jainkoak maite duen guztia maite izango dozu); eta zeure burua lez, zure lagun urkoa maite izan. Eta Kristok berbiztuta gero, beren ikasleei esan eta esateko agindu ei eutsana: nik maite izan zaituedan lez alkar maite izan.

Kristo Jaungoikoaren barriak aldarrikatzen zegoen baten, Bibliak diñoen lez, bere amari buruz auxe esan ei eutsien: Zorionekoak zuri esnea emon eutzuen bulerrak. Baña Kristok erantzun ei zien: Zorionekoa bai Jaungoikoaren berbea (itz) entzun eta betetzen dauana.

Kristok beren barri onak guztiei irakasteko agindu eban; eta Aitaren, semearen eta Espiritu Santuaren ize-nean bataiatzeko baita bedeinkatzeko ere; baña Bere Ama Mariari buruz, ezer eztiño. Jaungoikoaren barriak aldarrikatzen etorri ei zan da.

II-garren Koncilio Batikanok, Maria Eleizaren Amatzat artzen dau, eleizaren joera barri baten, eta Jaungoikoaren bitarteko itzalpe joera berrituan, Mari Artezari izendatuaz ¿Eta Jaungoiko aitaren aurrean Kristo baño geiago eta aundiagotzat jarri? Ori olan ezta iñoiz ere izan. Kristo Jaungoikoaren Seme izanik Jaungoikoaren barriak aldarrikatzeko agindu eban, eta ez besterik.

Jainko Aita eta Jesús jaunaren artean iñork ere ez leuke besterik jarri bear, eta aipatu ere ez, olangorik ez dogu zertan ontzat artu eta. Esaten da AMA langorik eztagoela, eta AMA itza, ago beteko berbea dala, baña Maria ez dogu Jainko Aita eta Kristoren tarteko. Kristok “Gure Aita...” otoitz egiten irakatsi eban, eta ez beste otoitzik. Besteak eleizeak egindakoak dira.

Errosarioa otoitzerakoan zentzun pizka bat geiago erabilli bearke liteke, baita beste gauza askoren artean, obeto esanda dagoelako Santa Maria, Jaungoiko Aitaren Seme Jesús Jaunaren Ama erre-gutu egizu gu... (Santa María Madre de Jesús Hijo de Dios Padre ruega por nosotros...). Bakoitzi berena emon eta bakoitzi beren lekuen utzi.

JOSE MARIANO BARRENETXEA

ARALAR BIZILEKU

Aralar mendia, Gipuzkoa-ko egosartaldean eta Naparroa-ko ekialdean kokatuta dago. Larre ederreko zelaiaik eta gaillur ikusgarriak bereizten dute. Naparroa-ko lur aldetan, berriz, baso biurtzen da. Ibilbiderik egokienak. Naparroa-tik: Lekunberri eta Uharteko Arakil. Gipuzkoa-tik: Amezketa, Zaldibia eta Larraitz. Lizarrusti-ko mendatetik: bi errialdeen muga. Ataun eta Ordizia aldeak ere, Aralar mendia gertuenetik inguratzen duten erriak dira. Eta guztira, ingurukoak: 31 erri. (24 Nafarroakoak eta gainontzeko 7ak gipuzkoarrak)

Beti ez da orrelakoa izan mendi eder au. Glaziazioaren garaian 600 metro ingurutik gora beti izoztua egoten zen. Arritzaga-ko sakana glaziar utsa zen. Eta Azkarate gaina, 400 metrotik gora, gela zuri-zuria. Orrela dakarte adituen liburuak.

ARTZANTZA

Aralar-i bizileku diogu izenburuan. Ori zergatik ?

Bada, Maitzaren leenetik Azarora arte ardiz betetzen delako, eta noski beroien ondoan artzaiak txaboletan. Beraz, bizileku, ogibide delako: artilla, esnea, esnekiak eta auetan errege, gazta, onenetakoa.

Leen, besterik gabe, larre garaia iritxi eta, artzaiek, isil-isilik, goibideak artzen zituzten mandoaren lepoa gainezka zutelarik. Gaur egun berriz, jai giroan egiten diote agur beeko bizimoduari. Artzantza omen da mundu onetan ofiziorik zaarrenetakoa, 5000 urte bai omen ditu.

Aralar-ko ateak zabalik

Nola irekitzen dira Aralar-ko ateak?

Orra nola:

Gipuzkoa-n, irudipenez, Larraitz-en irekitzen da bat. Eta orretarako ikuskizun ederrik antolatzen dute, aldi berean Euskal Erriko nortasuna ederki azaltzen dutelarik. Urtero Maitzaren leenean, aldaketa aundirik gabe, ikus dezakegun ospakizuna jarraiean aipatzen dugu: Xiberuako kantariak, Otsagi-ko dantza taldea, Tolosa-ko dultzaineroak, txiste kontalaria, abereen feria, bertsolariak, eskulangintzako erakusketak, eta bertako ekoizpenen salmenta: Aralar-ko gazta, txorizua, baserriko ogia, e.a. Eta euskera, barra-barra, Goierri-ko euskera sakona, geien entzuten delarik.

Naparroa-n ere jai giroko eguna “ Aralar-ko Elkarte Eguna” izenarekin ospatzen dute. Emen, ordea, artzaiak goian direlarik, Ekainean. Albi-ko zelaian antxe elkartzen dira ainbat erriko: Arbizu, Arribe, Arruazu, Atallo, Azkarate, Betelu, Etxarri Aranaz, Errazkin, Gaintza, Hiri-berri, Ihabar, Intza, Irañeta, Lakuntza, Lizarraga, Lizarragabengoa, Torrano, Unanua eta Uztegi. Denak bat egiñik

eta ikuskizun ederrak: Aizkolariak, korrikalariak, aari apustuak, oillar jokuak, e.a. Ogia, frejituak eta ardoa doain banatzen dituzte. Ekitaldi oriek amaituta gero, anaitasunezko bazkaria, eta or bertsolarien, txistularien eta trikitikarien txanda.

ARALAR-KO ERREALENGO BASOA

Errealengo deituriko basoa, Naparroa-ko Aldundiaren zaintzapean dago. Ederki zainduta ere ! Urki, gorosti, astigar lizar, pago eta ainbat motatako zuaitz ederrez osatutako baso sarria.

Errealengo izen ori zergatik?

Bada, Naparroa-ko 19 erri, larreetarako eta egur bilketarako erresuma ortako Errege batek emandako eskubideak dauzkatelako. Etxarri-ko jauregia eraikitzen lagundu zioten eta erregek, esker onez, eskubide oriek eman zizkien erri laguntzaileei.

Bada pagadi zabal ederrik ! Eta au ere bizibide. Ez dago esan bearrik, zuaitzak berekin bait du etekiña. Oso ondo zainduta dago, geroak ez dezan urritasunik izan. Garai bateko guarda, Joxe Zufiaurre, ezagutzeko zoria izan genuen. 1910gn. jaioa, eta 2 urte zituelarik, bere aita Migel ordungo guarda, Aralar-ko basoaren erdian dagoen etxe polit orretara igo zan bizitzera, familiarekin. Orduan ez zen kamiorik, eta Joxe-k geroztik, il zen arte or eman zituen bere urteak, aita zendu eta gero bera guarda izen-datu zutelarik.

Etxean eta basoan zear, sarri ikusten genuen, beti irri-partu eta adeitsu. San Migel Santutegiko apaiz on On Inozentzio Ayerbe-rekin, au ere zendua, mendizaleen laguntzaile, batez ere lañoan eta elurretan galduta-koen bila. Joxe zenaren emazte Nikolasa-k ondo zainduta-ko guarda-etxe orretan, ordu ederrik pasa dugu. Askotan bustita, beeko sutondoan, eta arrautza prejitu pare bat txorizua-rekin jaten, lagunarteko elkarriketa goxoan.

KOBREZKO MEATZAK

Lekuari men egiñez, egin dezadan aipamen labur bat bederen Aralar-ko meatzeri buruzkoa:

1732 tik 1804 bitartean kobrea ateratzen ibiliak ziren. Arritzaga deituriko sakanan; Amezketa-ko bide ondoan, kokaturik dago meatz ori, eta gaur egun ere or daude arrastoak. Pentsa garai aietan ordungo lanabesekin eta goi mendi orretako negute gogorrean, ez zuten erraz izango lana. Irabazi aundirik ere ez omen zuten atera.

Jesus Elozegi Irazusta da “Las minas de cobre de Aralar” izeneko liburuaren egile. Tolosarra genuen 1907gn.

urtean jaioa, idazlea, zerrenda luze bat osatzen dute berak argitaratutako lanak. Aralar-ko mendigoizaleen artean oso ezaguna, nik Aralar-ko aitagoietako bat zela esango nuke. Bere liburu orretatik ditut auek:

Pablo Petriati- Conde de Manet- deiturikoa, izan zen meatza orien lanketen bultzagilleetan nagusietako bat. Eta Arbizu erriarekin, Naparroa-n, lotuta egon zen bere bizitza guztia. Arbizu-ra, ezkondu eta bertan il bait zen, 1772gn. urtean. Ogeitamar urte bete ondoren Sakana-ko lurralde orretan.

Arbizu, erri maite !!! Nire ama zenaren eta gure aurrekoen jaioterri.

Gaurko Arbizu-ko Petriati-tarrak bere jatorriaren zerrendan, kate mailletako bat, meatz lantegien buru izan zen Konde trebe ori dute.

Arbizu-n badira bi etxe, bat Kondearena eta bestea Konde Zaarrarena. Etxe orien izenen sorburua, ez ote da Petriati Kondea?? Gera bedi ortxe nere galdera, gai orri buruz nik baiño geiago dakien norbaitek erantzun dezan.

ARALAR ETA FEDEA

Leengo fede giroari ere eustsiz, maiatzean asi eta urri-llarte, meza santua ospatzen da Igaratza-ko baselizatxoan.

Garai batean igandero, Lazkao-ko Aita Alberto, benediktarak, ematen zuen meza. Gaur aiñeko erraztasunik ez zen Aralarrera joateko, oiñez eta azken urteetan zaldi gainean igotzen zen, Lazkao-ko konbentutik, larre garaiko bost illebe orietako igande guztietan. Baselizatxoaren inguruan ere beste fede giroko jai eder bat ospatzen da, aspaldidanik. Orain 52 urte “Aralarko Adiskideak” izeneko Tolosa-ko elkarteak eratuta. Geroztik urtero, abuztuaren bigarren igandean, San Migel-en irudia, Naparroa-tik Gipuzkoa-rako mugara eramaten dute.. Eta Igaratza-n Meza Santua ematen dute, jendetza ederra elkartzen delarik. San Migel-eko Santutegia berriz, denok badakigu urte guztian otoitz kabi eta bizileku beti izan dela. gu euskal-

dunontzat. Ortxe eman zituen On Inozentio zenak, berrogeita amalau urte, fede giroa zaintzen, il zen arte.

MENDIGOIZALEAK

Badu Aralar mendi ederrak beste alde berezi bat ere. Nolabait esateko amesleku biurtzen duena. Ori kaletarrontzat izaten da, mendigoizaleontzat. Eta aurten, Olympiada urtea izan denez, azken aldiko oiturari jarraituz, beraz lau urtetik bein, “ Amalau Orduko Martxa” deituriko ibillaldia burutua dute. Tolosa-ko “Aralarko Adiskideak” elkarte-koek. 1925eko Ekaiñaren 7an sortutako oitura dute. Izena eta izana, amalau orduko ibilbidea Tolosa-n asi eta Tolosa-n amaitu, Aralar guztia zearkatuz. Irurogeitamar kilometroko ibilbide luzea. Xebe Peña-k, aaztuko ez dugun mendizalea, bere azken urteetan ere, larogeitik gora zituelarik egiña zuen, martxa ori beste ainbatetan bezelaxe.

Aralar bizileku, izaten den garaia iritxi zaigu, eta emendik aurrera mendigoizaleok, musika berezia entzun aal izango dugu, larre eta baso orietan barrena: Ardi latxen beeka, eta joareen bulunba. Zaldi eta beorrak, aldapan gora eta aldapan beera, draka-draka. Eta larre muskerak, mota txuri ibiltariez orniturik

*Aralar mendi, baso ta gaillur,
larre-zelai ta artaldea,
ardi txuriak berekin dute
artilla eta esnea.
Artzaiak berriz illemozketan,
gaztagintzaren tartea,
azken batean gizonarentzat,
orra or, ogibidea !!
Joxemari Murua-k
2004ko Ekaiñaren 29 an.
San Pedro eguna.*

**Joxemari Murua-k
2004ko Ekaiñaren 29 an.
San Pedro eguna.**

MARKIÑA´TIK BILBO´RA, 2004-07-18

Agur, jauna, agur ´erdi.

Lau illabeteko makal-aldiari, Jaunari eskerrak, agur esan ondoren, emen nago lerro apal batzuk egiten “Zer” aldizkarian uste-bako bigarren agerraldia eskertu nairik.

“Vanidad de vanidades, pecado mortal” esaten eben pulpitutik gaztetxua nintzala. A zan dardarea!

Baina agerketa orrek poza emon ba ´daust izan da abertzale zintzoa nazela diñoalako. Oraingo “Txitxili-planta” abertzale batzui adarrak ebagiteko aukera izan dodalako, “fotokopia” batzuk atara bear izan dodaz, ba maite naben lagun batzuk eskatu daustezelako. Aneika esker!

Ondo-ez onek argitasun barik itzi nau eta emen nago, geiago zer ipiñi ez dakidala. Zorra ordainduteko beste esan dot eta aurrera mutillak!

Ez dot uste aspergarri izango naiatzunik eta “urrengoan geiago” esanagaz agurtuten zaitut besarkada zintzo bategaz. Neure eguneroko agurtza deuna eta otoizetan gogoan izaten zaitut.

Aginaga´tar Miren Kasilde´k

Eskerrik asko, Kasilde! Euskaldun fededun!

SALMOAK

54N. SALMOA: JUDAZ ISKARIOTE

1

Salbatzailleak, ezaguturik ikaslean etortzea, esana zien: “Ondo litzeke mairdomo bat jartzea, artutzen diran ontasanakin bear dana pagatzea, zuetako bat karga onekin lagun izendatutzea”.

2

Etsaiak Judas benenaturik Juan zan Birjiñarengana: “Pedro ta Joaneke nere partetik esana da nai dedana. Zuri ta zure Seme Jaunari ondo serbitzeko dana. Eskatzen dizut Maixuagandik iristeko nik esana”.

3

Ama Birjiñak erantzun zion: “Pentsatu zazu, maitea, apostolu ta ikasle iñork ez du nai lan au artzea. Jaunak nai dizu zeuk baiño geio, ezin da engaiñatzea; biurtu zaite bere naiera artu pobre bizitza”.

4

Erori zera ta jeiki zaite emango dizut eskua; nere semea izango dezu zurekin errukitua”. Etzan bigundu baizik pentsatu nola zan ofenditua; birjiñak Judas tapatu zuan ixildurikan kontua.

5

Etsai arroak Jesús galtzeko Judas au aukeratuta, maiordamoa izatearren zeukan fedea galduta.

Eraso txarrez aurreratu zan Birjiña despedituta, Jaunagandikan au iristera On-itxuran eskatuta.

6

Esana zion: “Jauna nik nai zure naia egitea, lengoak baiño obetoago nik danori serbitzea, danori zaitu eta pobrei bear dana ematea, zure dotriña erakutsiaz lan au ondo betetzea”.

7

Jaunak Judasi erantzun zion nai ziola salbatzea: “Bai aldakizu zer deseo ta zer dan zure eskatzea? Etzaitez izan ain borrerua naiaz zen benenatzea, ta zeure kontra armak arturik zeure bizitza galtzea”.

8

Judase’k esan zion Jaunari: “Maixu nai dizut serbitu, zure kongregazioan alde nai det lanean jarraitu. Bide danetan auxe ondoan betetzea naiz abitu: agintzen dizut: nik beteko det.” Bereakin zan galditu.

55N. SALMOA: TABOR MENDIAN

1

Bi urte ta erdi ziradanean predikatzen zijuala, Aitarengana biurtutzeko denbora urrean zala, gizaldi dana zeruratzeko erosi bear zuala, nai izan zuan, sinistu zezen, nor zan agertzea ala.

2

Aukeratzen du mendi-tontor bat, Tabor izena duana, Jauna iru apostoluakin zan bertara igo izana: Pedro, Santiago eta Joan, indartzeko al zuana; ta agertu zan Jainkoan aintzan gizon bizitza zeukala.

3

Agertu ziran an bi profeta itz egiten Jaunarekin, izenez Moisés eta Elias aintza argienarekin. iltzen ikusi baiño lenago oiñare aundiarekin, preparatu nai izan sitúan apostoluak berekin.

4

Denbora artan etorria zan oi u itz bat zerukoa, betiko Aitaren izenean guztiok entzutekoa: “Au det nik nere Seme maitea, bera det ain gustokoa; Berari entzun bear diozue” zan Aitak esandakoa”.

5

Ama Birjiña ere izan zan aingeruak eramana, eta mendian Jesús aiñ argi begiz ikusi zuana. Bertan Jaunaren sekreto asko ezagutu zituana, gero estera aingeruarekin Nazaretera zan juana.

6

Jesús menditik jetxi zanean juan zan Ama ikustera, Jerusalem abitutzeko erriak despeditzera. Atera ziran Jesús ta Ama beste danakin batera,

Aitaran naia zalako pozez
bertan gu gatik iltzera.

7

Ama Birjiñak otoitz egiñaz
esaten zuan onela:
“Jaungoiko Aita errukitusa,
zuk jaso nagoela,
eskeintzen naiz ni bere miñetan
lagundu nai diotela.
Adanen semek salba ditezen,
zure naia dan bezela.

8

Joan santuak artua zeukan
Ama zaitzeko kontua,
ikusten zuan nola sendatzen
zuan mines llagatua.
Birjiña, Jesús zijualako,
Etzan mientan neurtua;
bere biotza Jaunak bakarrik
izan zan ezagutua.

56N. SALMORI LAZARO BERBIZTUN

1

Salbatzailleak animen alde
jarraitzen zuan lanean,
Judean zala Betaniara
Deitua izan zanean,
arriba Martak eta Mariak
anai illa zeukenean.
Lazaro illa piztu egin zan
Jaunak esan zionean.

2

Jerusalenen milagro ori
zabaldu zuen orduan,
apaizak eta farisaitarrak
amorrut bete zituan.
Agindu zien Jesús iltzeko
billatzeko nun zeguan;
Efrén errian Pazkoa arte
gelditu zan ezkutuan.

3

Denbora eldu zanean juan zan
Jauna apostoluakin
Jerusalena ta esan zien:
“Lotuko naue sokakin;
zigortu eta josiko naue
gurutzean iltzeakin”.
Ange apaizak bere zain zeuden
iltzeko arrabiakin.

4

Berriz juana zan Betaniara
sei egun palta zirala,
Pazkoa jaijan agertuko zan
taldeak an zai zeuzkala.
Lazaro piztu zuan etxera
arrebak deitua zala,
apari aundi bat eman zien,
Lazaro an zeguala.

5

Ama Birjiña ere emen zan
Pazkoan zijuaztenean,
salbatzaillea beren oitura
jateko jarri zanean,
an sartu zan Maria Madalena
maitasun beroenean,

oin da burua usaiz beteta
jartzen du bigarreanean.

6

Jesusi oiñak garbitu zizkan
bere buruko illekin,
maite ziola busti zizkion
nardos-usai onez bete zan
asko ixurtzearekin;
fariseotaz aren etxean
au egiña Jaunarekin.

7

Judas gaiztuak deseo zuan
perfume uri saltzea,
eta pobrian aitzakiakin
beretzako gordetzea.
Judas asi zan gaizki esanka:
“Au da alperrik galtzea”.
Nai izan zuan apostoluak
bere alde ipintzea.

8

Jesús maixuak esana zien
Madalenai lagatzeko,
etzuala gauza txarra egin
eta ez molestatzeko;
etzala ori pobrientzako
limosnak gutxituzeko,
ori zalako osekio bat
bera sepulturatzeko.

Aldalur'tar Justiñe
(Lekame Klaratarra)
Gasteiz'en

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

GIZAKIAREN ZORIKETA EZIÑAK EGIÑAK

Eskuetara zaidan Robert Jungk'en "Etorkizuna asia dugu" deritzan zoriketa-liburu arestian irakurria dut. Gaiaren azalpena, garapena txit argitsua da, atsegiña; noizbeinka -jakintzaren azken aurrerapenak jalkitzen dituanean batez ere-, siniskaitz keiñuz bekañai goruntz eragiteko gai izan arren. Alaz ere, bildugarritzko benetasun-oñarri-gabea danik ezin esan, kezka ta zirrara sortu arteraño bilbea egokiro askatzen batí digu idazleak.

Liburu ontan, inpernutar antzezpena bai'litzan, oraindar zibilizazioaren ekitaldi dardargarrietara, soin ta gozoz, egillearekin aurkezen gera.

Diorama argitsu betean bezelaxe, begien aurrez-aurre lerrotatzen zaizkigu mamituak, egi biuruak, giza-adimenak amets eziñen billaketan burutu dituan ezinkizun (?) eroenak, otzikaragarrienak.

EGATONTZI TXIMISTARIAK

Lertxunaga dalako tokian, erraldoi ta luzeak, suziriko batzuk dakuskigu. Suziriko telegidatu oiek abaillan goratzen dira, eguratsari gaiñartuaz eta irtendako leku berberara itzultzen. Mojave lekaoran, egazkin azkarren irten gunera garamatzi idazleak; eta abian jarrita, munduari bira-biraka, aidean irradaka bi egun ta gehiago egatu dai-tezkenak dira.

Atomuaren uria ikusgarri zaigu, loro zurrunezko esiz gordea, gaintxo batean ezarria, dorre goitiek inguratua. Ametsezko erria dirudi. Ta egunargiz, bertako bizilagunen betarte itunak ikustaturik, usnagarri egiten zaigu burnarizko esparruan ezkututzen dan inpernu-izkillu baten bildur illuna.

Araneta'n, egilleak atomu-bonbaren lerketa ikustarazten digu. Munduosteko ikusketa dirudi. Ango odeitzararen edadura gaizta, berorren argüi zurien eta itsukorra, ango eztanda ta dunbots dardargarriak!! Guzi-guzia gal-tzea dijoakigula dirudi, lurra kizkurtzera, barrunatzera, ondoratzena.

Beste atalki batean, basamortuan ondarperatutako gai atomutarren kondarrak mintzo zaigu. Kondar edo zabor atomutar oiek, milla ta millaka urtetan erradiegimena gal-

duko ez duten kondar irradiegikorrek diranez, irratasunaren erio-arrikkua taigabe berekin daramate. Ziñez, kondar oiek, inpernuko zatiak dira, gure gaurko aro aurrendu onek etorkizun-gizakiai tusita onakoxe oarraz: "arrikkutokia. Ez, gero, aurrera jo".

BIZINDAR ARTIPIZIALAK

Aruntzago, garai berri artako bizitzaren beste zenbait ikuspegi mirestera garamatzi idazleak. Ta Izadia derrioreztua dakusgu, indarkatua, beartua, lauskitua. Ta jakitarauzko bidez, beiaeren ernaltze artipiziala ikusi ezezik, oillo-sortzea ere ikustarazten zaigu. "Gaur elektroni" dalakoaren gelgaiak begi aurretik pasarazten zaizkigu; eta euria ta elurra artipizialki eragiñak mara-mara lurreratzen ikusten dugu. Gure artean, oraindik errogatibak egin oi ditugu euri-eske. An, Ameriketa'n, bidezko dan diru zerbaiten bitartez, Krich jaunarenera joatea naikoa, onen jakite-bidez euria naiz elurra zelai egarrietara erorazteko.

AUZNAR-GAIK

Liburua itxi bezain laster, gure aurreneko nabaipeña zabalgarria da. Lokarrazi gaituan zoramene do aztikeri batetik esna-berriak gerala deritzaigu; edo-ta urrutiko ludi batetik zear egindako bidaialdi luzearen etxeratzea. Ta gogarketan asten gera. Larritasunak artzen gaitu, antzematen batí diogu aipatutako guztia alboratzeko, guregandik aztantzeko egingo dana alperrekoa izango dalako, aurrera egin-bearrak ezerk etengo ez dualako.

Gogai onen azpian, munduaren aurren egunetatik gizakiari reagiten dion kezka ezabatu-ezin batek biotza ozkatzen dio eta kezka orretzek egin bidera bultzako dio.

Kezka auxe zeraman Kolon'ek bere ontziekin urandian barrena itsasoratu zanean. Zoriketari guztiak, abenturari danak Kolon'ek izandako kezka berbera dute bultzagarri. Zorizko leia orren axkureak eraginda urrutietara joan zitzaizkigun, lemaz, arpoiaz naiz gurutzez gure eusko

abendaren ainbat gizon bulartsu. Ameriketak aurkitu zira-nean, urre-zarparen billa euskaldunakin batera ainitz europar itsasoratu zitzaizkigun urretza orrexen dirdira zutela erakarle.

KEMENTSUEN GOGOZKKO KEZKA BERRIAK

Ez altxor billa baiñan bai lurgaiñeko jauntasun gogokoi bikaiña gizakiari dagokiola adieraziz, kezka auxe izan dute bultzagarri aro ontan, Everest gailurrera eta ludi-buru izoztuetara joan zaizkigun gizon kementsuak. Everest erpiñak eta ardazpuruaren ikutu-naiak gizonik asko lilluratu ditu ta hamaika trajedi sortu ere.

Ardazpurura-ibilgoak emon digu une eder ta ugari. Baiñan zenbait unieren artean bat izan dugu ventean aundi: Scott kapitainaren azken une aundikitar ua, oroz gain yaukal, ziñez gizon umanta baten lipar bikaiña bere azken mezua idazteari ekin zionean. Bere lagunak galdu-rik, ludi buru-buruan bere averiaren ikurriña goratu ondoren, antxe dago bakar-bakarrik, lumari lotuta, ikurriña lagun uts, gu'ri lurtarroi, burura eta biotzera zetorkionaz gutunik xamurrena idazten. Une zoragarria, benetan!

Bide orrek ondamedira garamala pentsa dezake norbaitek. Baita nik erantzun ere txepelai, aurrera-zale zira-nen izenaz, aunditasunera ta ezilkortasunera ere.

Kezka berberauxe da (lurralde guztiak ezagutu ondoren) goruntz, egurats-gaiñaruntz gizonak baultzatzen gaituana ixilpekoak estagetzera, Kezka orrexek itsasoaren sakoneraño eraman du gizona "gauza berriak" ikustera, itsas-sakongune itzalenen arkanu ta kuxeluak azterkatze-
ra, irudi mamutsu itxura-gaitzekoak lo dagiten zulogunetara.

Gizonen ausardiak ez du dagoaneko Erkul'en zutari geiagorik. Gure giza-gogoaren ezin-egonak berritasun ta zorizkoetara bultzatzen gaitu. Zergatik ote? Gure giza-kezka orren azpian irrikitasun aundia estalirik daramagula: zorizko zaletasuna.

BABEL-DORREAREN MITUA BERRIZTUA?

Azken aurkikunde aundien erotasunean, Babel-dorre zarraren mitu naspiltsua berritzen dala iruditzen zaigu. Zer besterik da ba, aruntzagoko joera ori, itto ezin dugun irrika ori, gorago igo nai ori, gordegailu guztiak lortu-naia, gai-ez dan dorre berri bat eraikitzea baizik, ortziraño mail-maillaka gure buruak jaso eta izar keñulariak ikutu ote daitezen saioa baizik?

Urrutizkiña, irratia, egazkiña, telekuskiña... ez ote ditugu ba, zerumailarik sendoetakoena baino?

Bide ortatik, atomu-bonba aurkitu dugu, baita idroju-
nuarena eta lerkailu amentsuagoak ere lortuko ditugula-
koan gaude, ditekena baldin ba'da.

Eguratsari gaiña artu diogu uste ez genduan goieratik; eta itsas beera murgildu gera joranez, iñoiz ezagutu ez dan skonetara. Altxor izkutuenak urrenez urren estalgetu ditugu eta estalge-bideak etzaizkigu itxi.

SALBABIDEAK ALA ONDABIDEAK

Elezarretan bezela ondamedira ote goaz? Agian, ames-
tsetan ikus antzera gure salbamenera? Ixilkai au Jain-
koa'rena da. Baiñan aruntz edo onuntz, batera naiz beste-
ra, nai ez dugularik ere, alabearrak eragiñnik taigabe
goaz. Salbatuko ala ondatuko? Nolanai ere alperrekoak
dira gure aurrera-bidean gelditu nai gaituztenen oi-uak,
zoztorrak zein erraldoiak diran bide-erakusle antzo datoz-
kigunen oarrak.

Bearbada, kezka onen azpian leia ixil bat ezkutatzen da. Agian, hainbeste lan izerditsuen jo-mugatzat zoriona-
ri besterik ez dio gizakiak jarraitzen. Ba' liteke auxe izatea
bai, ondo-ondotik, munduaren aurren egunetik gizonari
mugitzera reagiten dion bultzakada: zoriontasunaren
billaketa, ots, pakearena, lekaotako izpilluketa (j) bai
listan, egarriaren ezegai litzaigukun ur-osiña eskurakoi
edo eldu-laister dugula irudituarren, beti igesi ta igesi
dijoakiguna.

Nolanai baiñan, gure giza-izatea biurria da, egin-zale,
asaldari, matxinzale. Dugunaz, soin aldetik etsiarren,
gogoak aurreruntz bultz-egiten gaitu.

Onenbeste, gaur artekoaz alegia, alki gera bai. Alki
izateak ordea, erosobera biuru ginduzteke eta erosotasun
egonegiak urrezkerian itoko. Erosotasun geldoak, zaba-
rregiak gure gogo-kezka zabalduko ba'ligu, abere-maillan
gure buruak laister narrasturik ikusiko genituzke.

Gure izangoak aurrera reagiten digu. Erabakiz eta
bipilkiro ar dezagun ba, aurrera-bidea, ortan datza-ta gure
tragedia, gure aunditasuna. Sormena arrotuaz eta adimena
zorrotuaz, jakin-miñak egoak emango dizkigu, dakigun
eta ez dakigun bitarte illunaz gain, gizaki geran aldetik,
dagokigun mugarako egatu gaitzekin.

Babel dorre zaarraren kondar artean, naspil aundie-
nean, guretzat gelditu zan zutik naiaren aunditasuna.

Egigain

LEGE ZARRA: ZIGORRAK ETA KALTEAK

I LEGEA: MENDIRA EROAN DIRAN ABEREAK EGIN DAIKEZAN KALTEEN ZIGORRA

Lenengo esan eben: Bizkaitar bakotzak bere basetxea dauka, solo ta guzti, eta idiak, beiak eta auntzak eta abere-taldeak eta etxe-ondoan ez dauke zaindu-bearrik, baiña batzutan auzoko soloetan be kalteak egiten dabez eta ori ez litzake jasoko abereak makilladun zaintzailleagaz basora bialduko ba'lebez, antxiñako oiturea dan lez, orregaitik auxe agindu eben: Aberedun bizkaitarrak goiz-oro abereak mendira edo erri-basoetara eroan dagiezela makilladun zaintzailleagaz, jagon eta ekarri dagizan eta ori egiten ez dan bakoitxean berrogeta amar maraiko zigorra izan dagiela eta gabean abere txikiak, auntz, ardi ta txarriakaz batera abeletxean euki dagiezela eta ori egiten ez danean eguneko lau marai eta kalteak ordaindu bearko dabez soloaren jabearentzat.

II LEGEA: KALTEAGAITIK ABEREAK ZELAN BAITU

Baita esan eben: Abereak auzokoen soloetan, zein gairtza zein mastietan, sagasti ta baratzetan kalte aundiak egiten dituela eta orregaitik agintzen dabe: Jabeak abereak jagon dagizala kalterik ez egiteko eraz, eta auzoko solora sartzen ba'dira esandako zigorra izan dagiala eta soloaren jabeak abereak baitu eta bere estera eroan daitezala, eta iges ebin dabelako ezin baitu ba'ditu, jabeak emon dagiozala abeletxeratu dagizan eta ordaindu arte katigu euki. Eta jabeak lenago ateraten ba'dauz eun maraiko zigorra izango dau.

III LEGEA: ZIGORRA TA KALTEA ESKURATZEKO, JABEAK SOLOAK ESITU

Baita esan eben: Soloen jabeak errua botaten dautse abereen jabeai eta abereen jabeak, ostera soloaren jabeai soloa ondo esitu ez dabelako. Eta eztabaida alboratzeko auxe agintzen dabe: Abereen jabeak soloaren jabeari eskatu dagiela soloa esitzeko eta onek esitu egin bear dau iru gizonek aztertzeko, baiña esitutun ez ba'dau abereen jabea ez da izango zigorgarri kaltea ordaintzeko beartua baiña eta barrero bardin jazoten ba'da, kalteak ordaindu bearrrik be ez dauko.

IV LEGEA: AUZOAREN MENDIAN EREITEN DUANAK, BEREIA IZAN DAGIALA

Baita esan eben: Auzo-lurra garitarako edo beste ereite baterako artzen dauanak eta mendia dalako abereak kalte egiten ba'dautsoe, ereilleak arrisku ori onartu dagiala eta abereen jabeak ez dagiala izan zigorrik ez kaltea ordaindu-bearrik, abere-jabeak jakiñaren gaiñaera eroan

ez ba'dauz, baiña olan izan ezkerro kalteak eta zigorra ordaindu dagizala.

V LEGEA: ERBESTETIK EZ DAITELA ABERERIK EKARRI BARRIRO SALTZEKO

Baita esan eben: Asturias'tik edo beste leku batzutatik birikietako gaisoz Bizkai'ra datozen idi eta beiak, emen abereei kalte egiten dautsela, orregaitik agindu eben, bizkaitarrak ez dagiela ekarri kanpoko abererik loditu eta saltzeko, bere bear-izanetarako baiña ez eta erbestekoren batek saltzeko ekarten ba'dau, iñork ez dagiala erosi saltzeko eta olan erosi dauanak aberea galtzearen zigorra izango dau, iruterik bat bideak konpontzeko, beste bat saltaraiarentzat, eta irugarrena bete-eragillearentzat baiña arakiñak eskubidea izango dabe ekarteko ta loditzeko gero bere aragitegian saltzeko.

VI LEGEA: MENDITIK IDIRIK EDO LAN ABERERIK EZ EROAN, JABEARI ESAN BAGERIK

Baita esan eben: Batzuk jabearen baimen barik menditik mandoak eta lan-abereak eroaten dabez euren sololanak egiteko, eta au erriarentzat kaltegarri dan ezkerro, eta abereen jabeentzat galgarri, auxe agindu eben. Iñork ez dagiala bere eskuz eta jabearen baimen barik idirik edo beste lan-abererik eroan bakoitxeko irureun maraiko zigorra dabela eta aberea galtzen ba'da, lapur-zigorra izan dagiala.

VII LEGEA: MUGARRITIK URTETEN DIRAN TXARRIAK ZELAN BAITU

Baita esan eben: Bizkaitar batek garaua edo escurra dagoan lur-zatia dauko, erbestetik txarriak ekarten dira loditzeko eta txarridunak ordaiña emoten dautse lurdu-nai, baiña txarriak beste lur-zati batzutara be joaten dira, eta onein jabeak an aurkitzen ba'dabez, artu eta etxeratu egiten dabezela eta ez dautsoez biurtu gura izaten erosleari, orregaitik agintzen dabe: escurra dagoan beresian olako txarria aurkitzen dauanak jabeari emon bear dautso baiña txarri bakoitxagaitik marai bi ordainduko dauz eta gauzez izan ezkerro, lau marai, mendiaren jabearentzat.

VIII LEGEA: BESTE BATEN SOLORA ZELAN SARTU ETA ANDIK IGARO

Baita esan eben: Bizkaia'n beresi asko dagoalako, areitara asko sartu eta andik igaroten diarala, kalte egiteko asmo bagerik, eta auxe agintzen dabe: beste baten beresira sartzeko eta andik igaroteko, eskubidea edonork dauka, baiña ez burdiagaz edo abere perratuakaz, eta orrelan sartzen dan bakoitxak eun marai ordaindu dagiza-

la herida jabearentzat eta beste herida bideetarako. Eta gaiñera kalteak ordaindu beste alderdiari.

IX LEGEA: TIROA JAURTITEKO AGINTZEN ADUANAREN ZIGORRA

Baita esan eben: iñor ez daitela ausartu tirorik jaurtiten edo jaurtiteko agintzen, jaurtituen dauanak eriotz-zigorra izan dagiala eta agintzen dauanak zigor bardiña.

X LEGEA: SU-EMOILLEEN ZIGORRA

Baita esan eben: Garitzai edo solo ereiñai edo etxeai sua emoten dautsenak erio zigorra izango dau.

XI LEGEA: SOLOAN ZELAN ERRE KALTERIK EZ EGITEKO

Baita esan eben: Zugazbageko larretan batzuk sua egiten dabe bedarraren onerako eta batzuta su ori beste mendi batzutara joaten da eta kalteak egin eta sua zelan egin jakiteko auxe agindu eben: Suak urteten ez dauan aldian egin dagiela eta urten eta kalterik egingo ba'leu, su-egilleak hamalau urtetik gorakoa izan ezkeru, kaltearen bi alakoa ordaindu dagiala, iru zati egin eta bat izan daiten bidegintzarako, beste salatariarentzat eta irugarrena epaikariarentzat. Eta hamalau urtetik berakoak gurasoen aginduz egin ba'da, zigorra gurasoak ordaindu dagiela eta agindu barik egin ba'dau urtebeterako erbesteratu daitela eta ori iñork etxean artzen ba'dau, zigorra berak ordainduko dau eta zarragoa ba'da, ordaindu arte espetxean egon daitela.

XII LEGEA SURIK NON EZ EGIN

Baita esan eben: Erri-basoetan surik iñok ez dagiala egin eta egiten dauanak kalterik egin ez arren be, bost milla marai ordainduko dauz eta adin txikikoa ba'da bost urterako erbesteratu.

XIII LEGEA: NORBERAREN SOLOAN ZELAN SUA EGIN

Baita esan eben: Norberaren tratza edo otatzari edo soloari sua emoteko, edonor izan daitela eskubidedun, sua zabaltzen ez ba'da, eta zabaltzen ba'da kalteak eta zigorrak bi alakoz ordainduko ditu.

XIX LEGEA: IÑOREN ZUGATZAI EZ AZALIK KENDU

Baita esan eben: beste baten mugarri-barruan edo erriko basoan zugatzai azalik kentzen iñor ausartzen ba'da, bost zugatz baiño gitxiago ba'dira bi alakoa ordaindu dagiala jabearentzat eta seireun marai bideak konpontzeko eta geiago ba'dira zugatz zurutuak iñauslearen zigorra izan dagiala.

XV LEGEA: IÑOREN ZUGATZEN ETA MASTIEN IÑAUSLEAK

Baita esan eben: Iñoren zugatzat zurutu edo iñausi egiten dituana orregaitik il daiteala. Mugarriak kendu edo

aldatu egiten dituana, eta sarritan zalantzak izaten diran ezkeru, ogei zugatz baiño geiago ebagiten dituana iñausle izan daitela eta gitxiago ebagiten dituana urte birako erbesteratu eta jabeari lau alakoa ordaindu...

XVI LEGEA: NOIZ EZ AUZIRIK SORTU ZUGATZAK EBAGITEAGAITIK

Baita esan eben: Basoko eta igale zugatzak ebagiteak bidea zabaltzen dau ebagite txikiagoak zigortzeko, esaterako otak, agak eta makillak ebagiten diranean edo igartuak, olakoetan ezin leike zigor auzirik ezarri.

XVII LEGEA: BAIMEN BARIK MUGARRIAK KENDU EDO ALDATU

Baita esan eben: Mugarriak ipiñi edo aldatu edo kendu baimen barik egiten dituana seireun marairen zigirpena jausi daitela.

XVIII LEGEA: IÑOREN SOLORA INDARREZ SARTZEN DANA

Baita esan eben: Iñoren solora indarrez sartzen dana, soloaren balioaren bi alakoa ordaindu dagiola jabeari.

XIX LEGEA: OLEA EDO ERROTEA EDO ANDAPAREA APURTZEN DAUANAREN ZIGORRA

Olarik edo errotarik edo ur-biderik apurtu dagiana, orregaitik, il daitela eta kaltea bitan geturik ordaindu.

XX LEGEA: IÑOREN UPELA USTUTEN DAUAMAREN ZIGORRA

Baita esan eben: Beste baten upala zulatu eta an dagoan sagardoa galtzen aduana bortxariaren zigorpean jausi daitela eta beste alderdiari kaltea lautan ordaindu. Eta ostuteko asmoz egin ba'leu lapurren zigorra izan dagiala.

XXI LEGEA: AITATUTAKO KALTEEN EGIZTARRIAK

Baita esan eben: Ebagiteak egin, sua emon, zugatzak zurutu edo azala kendu egiten dautsoenak ezin izaten dau lekukorik ekarri bakar-lekuak diralako, eta zigorrarik ezin ezarri, eta ortik kalte aundiak etorten jakezela bizkaitarrai, orregaitik agintzen dabe, olako okerrak errian zabal dabiltzan ustez baietzatu daitezela.

XXII LEGEA: ESKER TXARREKOEN ZIGORRA

Baita esan eben: Aitak edo amak baten bateri doan emoten ba'dautso edo ezkon-sariz, eta artzailleak eskuak ezarriko ba'leutsoz emoilleari, eta olakoa kexaz ba'letor, artzailleak ondasunak galdu dagiala.

OLAZAR'tar Martin'ek

ABERATS BATEN AUZI-OSOAK

Kontatzera noatzuen pasadizo au, gizon parebako batek eroan eban bizitzaz da eta banetan izandakoa ei da, gaiñera. Alan dala baieztu eusten beintzat onen atal bat ezagutzeko erea izan eben bere sasoiko erritar batzuk eta oneitatik datorkidaz gizon orrek izan zituan gorabeera batzuk.

Gugandik naikoa urrun dagoan lurralde batzuetariko baten izandakoa ei da, eta aspaldion, gaiñera, itxas-ertze-ko erriburu txiker baten, arraintza zalako an bizibide bakarra.

Gutziz lau katu ziran ango kaian bizi ziranak, batel zar bategaz zeñiek geien arrantzatu eta alperrik galdukoekin orniduta be gatzetarako be ez ei eben irabazten. An dana zan ator eta praka zaarra erriaren egaletan: "Pobrien etxean beti bariku".

Bein baten, itxasoa asarre egoanean, bela-ontzi aundi eder batek, bere bi masta ta guzti, andra eta gizonezko mordoska alaitsuakaz, barrukoen gurariak askeak zirala eta neskatilla ezin ederragoak erdi billusik euren tripeko zilla agirien erabilela, tosta-ganean aratin egozan, euren oporraldia zala-ta. Ontziak ango kaia barrura sartu-bearra euki ei eban ekaitz gogor baten bildurra ekarri ebalako, eta, bada-ezpadan, aretatik euren buruak gorde nai ebezelako, beintzat ur gazi gangartsuak baretu arte, eta olan egunetan itxasoratzerik ez eben euki.

Itxas-ontzi aren ugazaba aberatsa eta itzal aundikoa, dirutsua eta diruz atzitua zala igarri ebenak zuzen egozan, alan zan izan be eta. Diru-egille amorratua zan, ukutzen eban dana urregorri biurtzeko gauza zalako. Eta osasunez antzera, egundo buruko miñik izan bakoa zan, olakorik zer ete zan be ez ekiana, "egun onean zilla ebagitakoa" esaten daben lez.

Itxasoa ondu eta bere ur-ganeak leundu ziranerako batel eder aren branka soketatik askatuta norabide ez-ezaganerantz abiatu zan ezeren oztopo barik eta ur-bitzetan itxasoa ebagiten urrindu zan guztien begi-bistatik urriñeko zabalean.

Andik aste batzutara, ontzi ori barrero agertu jaken ango uretan eta lengo kaia beratan sokaz lotu eben ango gizon eukitsuak, erri koxkorraren barruko aldetik txango batzuk egitera lurreratzeko txairo-txairo eta zeozer euren gogokoa aurkitu eben ze, urrengo udea zala an bertan ebi-llera ikusi eikean barrero eta urrengoetan be bardin, baten be utzik egin barik

Antza dagoanez berarentzat ziran gauzarik gurenak antxe bertan eukazalako: Bakea, lasaitasuna ta bizilagunak gordeten eutsoen lotsea. Berebiziko tokia eban ba, alagalakoa nunbait, bestelako lekua, erri aundietako astrapalatatik urrun baiño urrunago egoana, iñork be nun eta zetaz dagon asmatu barik eta deungeak, koipesto ta zorriskoak egunaro euli auspoetan, labankerietan eta ustelezko gortzarretan ibiltzen jakozenetatik urrun egoteko leku egokia, baiña an ez egoan orrelakoak aragaiño etorri eta lorrak emon leikioezan ardurarik.

Bertako arrantzaleak egunak dakarrenagaz bizi ziran eta euren itsasoratuteetan beste kaltetakoi ondamuz begiratzen ei eutsen arrain geiago, ariñago ta nasaiago arrapatzan ebelako eta sare ta tresna obeakin maniatuta erabilten zituelako, eurenak ziran ontzietan baiño

Urteko batzar nagusia egiterakoan, gizon oneik erabagi au artu eben: Gizon aberatsagana joan eta berba artez eta lau kalamatrikerik barik eginda, eurentzat ezerezean onen besteko bat diru zorrean eskatuta, tresna obe ta barriak erosteko eta euren ordurarteko arrantzukera aldatu al izateko, gero aukera obean euren arrantzako ekiñaldietan arrapaketa obeak izan dagiezan.

Gizon diruz okitua berba oneik entzun ebazenean, asarretu egin jaken bizi-bizi eta emonda ez dala eukiten gogoratu eutsen. Lenengo ango lurretatik ainbat lasterren alde egitea otu ei jakon eta geiago bere burua an inguruetan ez agertzea. Baiña laster damutu ei zan berea ez zan arazoa baztertu eta aaztuteko.

Arrantzale temosoak, barriz, barrero be ekin eta ekin egin eutsoen eta mamultzik barik danen onerako zala-ta, bear-izan gorrian egozala-ta, baltzu bat danen gurariz eginda, dan-danen porazuz osotu ezker, iñolako trikimailurik barik, urteko irabaziak banatzerakoan, ondasunetatik euren beste izango ebalagindu eutsoen.

Gizon diruz atzituak dirua ipintea baiño ez eukan eta arrantzaleak lanari ekitea eta lenengoetan asarrez izan ba'zan, orduan larri eta suminduta, bizkarra emoten ei eutsen eskaleai kalean aurrez alkar ikusten eben bakoitzean, ezpanetan irri garratza eukala eta buruagaz alderdi bietara ukatuten ebalagaurrapiderik emon barik, alako gauzak aleetoa baiño ekarten ez ebelako. "Diru-kontuetan lagunak gitxi" diño kopleak eta bera ez egoan txikirik be iñori emoteko asmotan.

Alako baten, iñork usterik ez ebanean, emoten eutsoezan alamenakaz aspertuta, eta arteak artzeko naian eta

zikoztzat bera artu ez egien, baiezko kontua agertu eutsen eta, sinistekoa ez ba'da be, denporea aurrera joan zan eta emondakoagaz aitzu egin zan,berarentzat izango ziran diru apurrak be artu barik.

Urte areitan areik arrantzaleak era obean bizi ei ziran eta arrain sardetan egiñeko arrapatzeak nabarmen geitu ebezan eta askotan atzaz bete egiten ebelakoan, eta ez beiñola lez eguzki erretan eta izertzan beti.Arraiñetan euren garri idarrezkoakaz lan egiten eben, aldegiten itzi bear ebenean be ango itsas-ur zabaletan eta Jainkoaren legeak agintzen dauan ezkeru "bakoitzari berea" emoteko ustez.

Gure gizon okituak bere udako osteretan irriparez eta jaramonik egiten ez eutsoelakoan.berez-berezko gauza dan lez, zegozkion lakiak eskuratu egiten ebazan urtero eta danak pozik.

Urte orreitan, arako gizona ez ei zan ikusten, itxuraz zeozer ezbarðiña jazo zalako,aguretuta eta urtez gero marroizetan bere soiñeko jantziakaz, lepo-makur eta makillaz ibillita, aldatz-bera etorren bere diru-ara-zoetan, zorigaiztoak jota, debeku barik ugaritasunetik urritasunera eta ezerezera etorri zan ondatu-arte, eta soiñekoakaz utzean geratu ei zan,ezeren jabe ez zala, patrikerak gorri, ez dirurik, ez lagunik, ordura arteko zorionak bere aurpegi mingotsaz erakutsiz eta udeetarako ezkuta-leku izan eban ori, orain bere aterpe bakarra zan, beste iñora joaterik ez ebala "ondasunak galdu ezkeru dira ezagun adiskideak" esaten dabe eta zertzuk ikusteko jaio garan ba'genkigu jakin! ...ze areik aspal-

diko diruak, egun on baten erriari laguntzeko maille-
goz emonak izan ba'ziran, naizta mormoxetan, arramuzka, muzinka eta asarrez, orain arein menduak bere eguneroko ogi biurtuko jakozan, bera bizirik izango zanerako.

Bere irabazi bakarrak andik etorkozan eta ez makal bizi al izateko ganera!Bestela kale gorritan eta Jainkoaren izenean eskean ibiltea eukan.

Guzti oneik jakinda, bere erakutsia itzalezkoa izan ei zan, miresgarria, ezin-obeza:Errukitu egin ei jakozan euren arrain-usaiñetan bete-betea, izketan apal eta astiz egoterakoetan, xala ta danen adiskide, itsuai argi egiteko gogoz eta izan eban gogo txarra egundo iñori aitatuten ez eutsola eta andik urte askotara indarmetuta, bere anak bata bestearen ganera botateko gauza ez zala, eta danen oneritziz baita euren ederrak eukiaz joan ei zan mundu ontatik Goikaldekoaren deia entzundakoan eta an daukelako errikoak euren sinismen osoan.

Arrezkeroz erri-enparantza erdi-erdian bere aurpegi zoliagaz irudi eder bat arrian landua ereikita daukotsoe bertakoak bere gomutaz eta igarrian zantzuz,ezinbesteko eskerrak emonez eurakaitik egindakoagaitik.

Aurrerantzean, pobreak izan arren be, praka barriagoak baita nasaiagoak ikusi eikezan ango kale istuetan. AMEN.

Alberto Narbaiza Etxeandia



**IPUIN-SARIKETA
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)**

- EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
- Ipuiniak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
 - Ipuiniak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
 - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. ZER'en argitaratuko dira.
 - Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da.
 - Sariak bost izango dira:
 - 1.ª 300,50 euro.
 - 2.ª 240,40 euro.
 - 3.ª 180,30 euro.
 - 4.ª 120,20 euro.
 - 5.ª 60,10 euro.
 - Ipuiniak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKARAZALEAK

Oarra: Al dala orrian eta disketean bialdu

EMAKUMEEN ILKETARI BURUZ. ERDERAZ “VIOLENCIA DE GÉNERO” DERITXONA

Denbora onetan, emakume pillo bat il dabez euren senar edo lagunak.

Egun onetan be, arazo orregaitik ume bat, bost urteko neska bat, il da.

Bere senargaia, amazortzi urteko mutil batek, tiroka il eta gero mutillak be bere bizitzea amaitu dau.

Joan dan astean, liburu bat irakurten neban bitartean, lan txiki au bururatu jatan.

Olerki bat sartuko dot lantxu onetan, baña, idazlea erdelduna zalako, erderaz idatzi bear dot olerki au.


LA LEY DEL EMBUDO

“Campoamor´en liburutik artuta”
París, 1887

De su honor en menoscabo
faltó un esposo a su esposa;
Ella perdonó amorosa,
y el público dijo ¡bravo!
Faltó la mujer al cabo,
y el falso esposo ¿también
perdonó a la esposa? NO
El esposo la mató
y el público dijo ¡bien!

Karmele

Izarrak, illargiaren billa joan gura dabe. Nundik?



EUSKERAZALEAK

EUSKAL ASTEA: 2004-11-22´tik 26´ra

- 22.- Astelena: Bertsolaritza: Legarreta´tar Asier´ek.
- 23.- Martitzena: Euskaleria Europan. Atutxa´tar Paul´ek (I).
- 24.- Eguastena: H´a euskerean. Olazar´tar Martin´ek.
- 25.- Eguena: (Izendatzeko)
- 26.- Barikua: Euskalerrria Europan (II) Atutxa´tar Paul´ek.

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2004-2005 IKASTURTEA

OGEI TA AMAZAZPIGARRENA BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 -
URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 13'AN

37º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 94 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 13 DE OCTUBRE